

# HELDER CAMARA

Oso ezaguna egin da munduan Helder Camara. Bakearen aldeko lanek eta oihuek egin dute ezaguna.

Baditu bere etsaiak. Baita lagunak ere, ordea. "Bakearen Nobel Sari Herrikoa" eman diote oraindik orain. Ez du ofizialki eratu dagoen "Nobel Saria" irabazi. Kissinger eta Le Duc Thouri eskaini zitzaizten oihutarako sari hori.

Baina zenbaitek (ez orainxe aipatu ditugun bi gizon ospetsu hauei), Helder Camara Getzaiari opa izan dio Bakearen Nobel Saria.

Izan ere Helder Camararentzat bakea ez da gerrarik eza. Gerra bat amaitzea bakarrik ez da bakea egitea. Bakeak indarkeria desegitea eskatzen du. Batez ere zapaketa, miseria, zigorraren, ezjakintasunaren eta morrontzaren iturri den indarkeria. Ezarrikerik dauden zenbait lege eta molde salatzen ditu lehenik.

Hauxe beraxe zioen aste honetan Donostian hitzaldiak eman dituen Lanza Del Vasto-k. "Ez gaitu noizbehinkako muturrak, beroaldiak eta heriotzak kezkatzen. Legearen baimena duen indarkeriak kezkatzen gaitu. Hau laban zastada baino askoz gogorra da".

Gizarteko gaitzen iturri den legeko indarkeria hau kendu egin behar da. Legearen babesa duen indarkeria hau salatu egin behar da. Hori egin ezik, etengabeko borroka eta gudua sortzen dituen egoera bat indartzen ari gara.

Indarkeriazko eta gogorkeriazko egoera honek zapaltzen ditu herriak eta gizonak. Azpian dauden herri hoiak eta gizon hoiak garraixei, zalapartei eta ostikoei bakarrik deitzen dio zenbaitek indarkeria. Hau ere indarkeria da Helder Camararentzat. Baina lehen aipatu dugun indarkeriaren erantzun bat besterik ez da. Gaitik lege ezarrikerik dagoen indarkeriari erantzuna. Hau bait da indarkeriarik bortitzena, lotsagabena, maltzurrena eta basatiena.

Miloiak gizon emakume daude beharrik gorrinean: goseak hilda, eskolarik gabe, osasunik gabe, askatasunik gabe, gizarteko arazoetan sarzerik ez dutelarik. Indarrek bakarrik eusien zaio honelako egoerari. Inor ez dago bere gogoz egoera errukarri honetan. Norbaitek edo zenbaitek eusien dio min ez dagoen jarrera horretan. Lege batzuk, moldaie batzuk, erakunde batzuk daude egoera honi eusteko.

Azpian dagoenak gainera atera nahi izaten du. Hori du berezko joera. Horretan ez dago zalantzarik. Inori ez zaio gogoko besteren azpian ia leherturik egotea.

Katea, soka eta antzadia asko behar da honela sufritzen dagoen jendeari eusteko. Eta minak arintzeko loak hartzea bezalakorik ez. Zenbat eta korde gutxiago duten, zenbat eta ezaguera gutxiago, zenbat eta lo astunago orduan eta lasaia biziko dira. Zenbat eta aberago orduan eta errazago gidatuko dituzte.

Baina begiak zabaltzeaz batera minak hasten dira, garraxiak ugaltzen, lo daudenak esnatzen eta abere antzera taldean doaznak sailetik ateratzen. Ez dute lo egon nahi, ez dute abere izan nahi. Gaitza nondik datorren jakin nahi dute.

Ezin, ordea; gainera datorkigun luiziak bezala azpian hartzen ditu altxa nahi duten bakoitzean. Zerbaitegin nahirik hasten diren bakoitzean burutik beharako zarteko lehorra jasotzen dute.

Legez zuritutako indarkeriak, baina indarkeria bortitzak, menderatzen ditu herri eta gizonak. Indarkeria guztien aurka eta batez ere indarkeria honen aurka minzko zaigu etengabe Helder Camara. Bakearen albistari bilakatu zaigu.

Inork mereri badu Helder Camarak mereri du Bakearen Nobel Saria.

# GURE GIZA - GIROA

Lehego egunean galde egin zioten Manuel Aznar jaunari ea nahitaezkoa zerizkion periodista ona izateko Unibersidadeko Periodista titulua eskatzeari. Erantzuna: «Nahitaezkoa? Ez inoiz ere. Garbi diot ezetz. Ez diot ordea nik gehienentzat garrantziko ez denik. Baina besterik gabe Fakultadetik irtego diren tituludunak periodista onak izango direla ez da pentsatu behar. Hori bai, ikasketa horien bitartez iritxiko dira lehengoek ez zuten halako kultura zabalaren jabe izatera».

Halare arrazoizkoak dirudi periodistek ere beren lanbidearen agiria eskatzeak, bizibide gehienetan gertatzen den bezala.

Gehienetan esan dut. Ez denetan. Esaterako, enpresario, ola-jau, lantegi-jabe, industria-nagusi izateko ez da inoizko titulurik edo jakite-agiririk behar. Ongi ahal dago hau?

Ihazko apirilaz gero galanki mintzatu da jendea, mundu osoan esango nuke, LIP arazoaz. LIP Frantziako Besançon eskualdean erloju fabrika bat da, azkeneko urteetan galerak eta langilleekin eztabaida haundiak izana. Langille asko xamar lantegitik kanpora bota behar zirelata, langilleak haserratu dira eta lantegien jabe egin, erlojujantziari eutsi zioten beren modura, eta saltzeari ere bai, nagusiak eta gobernu bera ezin eta gehiagoraino harrituz, eskandalizatuz.

Hori dela-ta, LIPari buruz izandako elkarrizketa horietako batean enpresarioen titularen arazoa ezarri da. Gaur den egunean ez da titulurik behar lantegi-jabe izateko. Pentsa dezagun gero enpresarioen eskuetan dagoela ez bakarrik diru pilla bat, makina pilla bat, baizik eta baita gizon eta emakume askoren bizitza bera, zoriona eta zorikarria, etorkizuna alai bat eta gero illun bat. Arrazoizko ahal da maila hortara allegatzea libertade osoarekin, jakite berezirik gabe, ezeren titulurik gabe?

Eta periodistekin bezala, ikusi egiten da sarritan gaitasun izugarriko enpresariok gertatzen direla titulu gabeako asko. Baina hori ondo ahal dago? Ez ote litzateke hobe, beste profesioetan bezala estudioak esijitzea? Estudio berezirik gabe ere oso periodista onak izan direla ikusia dago, Baina hala eta ere Fakultadega jarri dute, eta periodista izan nahi duten guztiak hartan ikastaldiak egin beharko dituzte.

Eguneroko bizitzan, baita batez ere ola eta lantegietan, industria-aroa baita gurea, nabarmen-nabarmena da gurea: diruari begira gaudela denak, diruagatik salatzeko gurea, diruaren atzetik gabiltzala, diruak agintzen duela. Dena da ekonomia enpresan. Kontuz ibilli behar da diru gastuekin. Eta sozial gastuekin zer? Sozial gastuei begiratzeko ahal zaie?

Ezin ikusiarri, gorrotoari, maitasunari eta ongi nahiri buruz, axaletik, gaingiroki hitzegitea gauza zaila eta da. Honela ez baita inor konprometitzen, ez baitu inork mihiik hartzen (eta ez baita ezer konprometitzen).

Zailxoagoa izaten da hodeietatik, goi-lainoetatik jatxita, zehatz-mehatz problema konkretuei aurpegia ematea, aipatzea, ezartzea, azterzea. Galde dezagun, adibidez, Gipuzkoa nola aurkitzen den giza-giroaz. Zehatzago dena, galde dezagun Gipuzkoa nola dagoen lantegietako giza-giroaz. Bakarrik diruari begiratu behar bazaio, gorrena eta itsuarena egin dezagun, bai, galdera txatxua dela esanaz. Baina baldin gizonak eta emakumeak diru hutsez deneri ere erreparratu behar badiote, baldin giza-baliok zerbaite badira, baldin izpiritualiotan sinisten badugu, leialtasuna eta zintotasuna eta zuzentasuna hainzart hartzeok baldin badira, orduan pentsa dezagun ondo, orduan galde horri erantzun egin behar zaio: nola daude gure lantegiak giza-giroz?

Enpresentan oso maiz erabili ohi dira «ratio» direlakoak diru-kontueko, lehen-gaien kostea jakiteko, salketak eta erosketak elkarrekin duten erlazioa neurtzeko, irabaziak salketak gonparatzeko, eta abarrrerako.

Giza-giroa neurtzeko, jakiteko eta gonbaratzeko ere, erabil daitezke «ratio» sozialak, langilleen iraba-



zaki, gaixoaldiak, bizimoduak adieraziko dizkigutenak. Ale batzuk agerituko ditugu soilik.

1. Zein da egiazko lanaldia legezko lanaldiarekin nertuaz?
2. Zenbat ematen du enpresak langilleen klase guztien seguroetarako, legeak agintzen duenaren gainetik?
3. Batez beste langille bakoitzak zenbat urte egiten ditu lantegian, beste lantegi batera joan gabe?
4. Zenbat langille igotzen dira mailaz urtean?

5. Etxe-bizitzak langilleentzat erosteko zenbat diru jartzen du enpresak urtean?

6. Eta zenbat diru langilleen eta langilleen seme-alaben kiroletarako, kulturarako?

7. Zenbat egunetakoak dira egiazko bakazioak, eta zenbat legezkoak?

8. Langilleen ordezkariak izendatzeko zenbatek ematen dute botoa?

Zortzi horien modura, beste asko jar daitezkeela gauza argia da. Gero edozein estadistika-daturik bezala bil daitezke sozial-daturak ere, lantegiak, lanbideak, herriko, eskualdeko. Adierazi eta zabaldu behar lirateke, guztientzat jakingari direnez gero. Orduan jantxiago izango ginateke gure lantegien giza-giroaz mintzatzeko. Eta Gipuzkoa osoa alfer gabeko langilletgia baita, gehixeago jakingo genuke gipuzkoar giza-giroaz ere.

Esan dudana egiteak berez ez luke ezer konponduko. Berdin gertatzen zaio sendagileari gaixoaren gorputza aztertu eta galderak egin eta gero. Orduarte ez du sendatu. Bai ordea sendabidean jarri, bai pausu haundi bat eman sendatzeko, sendatu nahi baldin badu behintzat, pentatzeakoa da.

Penagarria baita. Urtean milaka liburu argitaratzen dira enpresen diru-aldeak erakusteko, aurreratuko, nagusitzeko. Urtean banaka batzuk besterik ez dira argitaratzen enpresen giza-baliok errespetatzeko. Ezberdintasun nabarmen honek salatzen du gaurko ekonomia enpresen gaitza.

I. BUJANDA

## Kanta berria Frantzian

Parisek ez du Frantzia ezagutzen. Frantzia edo Frantziako lur-mugeta-ko herriak.

Argien Urian jaio beharra dago. Eta han baitaizua izan behar da, arrakasta izan nahi bada.

Parisko kanta-lekutan eta irratietan «maite zaitut, maite nauzu, gozen ohera» kantatzen zen bitartean, ez zekien paristarrek bazela Quimper-en, eta Montpellier-en, eta Bionan... abesmodu desberdin bat. Eta jakin duenean ere, berehalaxe bataltatu du folklorea! Lehen ere hizkuntza horik «patois» bat izan zuen. Izan ere, hori den hori ongi ezagutzen zuten berak turista edo udatari bezala handik ibilli delarik.

Folklorea berebizikoa zela erabaki zuten, eta titlo Justiziaz, askatasunaz, bizitzeko eskubidez mintzo zirela? Ezin ulertu. Hortaz mintzatzeko Pariseko «rive gauche» kabaretetik igaro beharra bait dago! Gisa da.

Nork errua? Bistan da: bretoinak, eta okzitanoak, eta katalanak, eta euskaldunak, eta alsaziarrak... Ez bait dute frantses ez abesten. Nola nahi da, bada, kondizio horietan paristarrek ulertzea? Frantses ez abestuko balute sikera...

Azkenean enteratu dira, badela zerbaite jakin dute. Eta guti batzuk zer den hori jakitera joan dira. Ihaz zen hori. Eta ikusi dute egiten duten horri folklorea ditzearekin haserratu egiten direla kantari horiek. Folklorea? Herriaren kantua den neurrian bai, baina ez orain hirurehun urtetako kantamoldea errepertitza den aldetik. Tradizio xahar bati eustea ez baino kontzentzia-hartzea eta geroa asmatzea dela kantatu horren funtsa, hori ere sumatu dute kostata.

Alan Stivell bretoinak esan die nola herri-kultura salbatu nahi duten, eta «txistua lurrera botatzeko eta bretoinak mintzatzeko debekaturik» ezagutu izan arren ez dutela aurrerantzean hizkuntza horren lotsarik izan nahi.

Mugimendu honen hastapenetako beste herri-poeta kantari baten berri ere izan dute. Glenmor batek nola bere herria, Bretaina, defendatzen zuen eta Paris irainka hartzen, hiriburua tirano bezala, arrotzen jale eta bere barnetik ateratzen ez den ororen mexprietatzale. Okzitanian ere badela zerbaite entzun dute. Honek ere galdutako hi-

tza aurkitu egin ote du, gero?

Eta zer kantatzen dute? Montsegur edo kataroen gaztelu, Tolosa edo Okzitaniako herri nagusia, Carcassonne-ko harresiak. Hori bai, baita ereago ere: husten ari diren herriakak, camping bilaketzen diren landak, eta Larzac entzuna, etc. Herri... «Hiltzen ari den lurralde batez mintzatuko naitzuzue...» esanaz hasten da Marti irakasle kantaria. Bide berari jarraitzen zaizkio beste batzu ere: Patric, Delbeau, Mans de Breish... «Kantuek egin baditugu, arrazoi edukitzea erabaki dugun seinala-ek», abestuko du Mans de Breish-ek.

Oraindik ere Euskal Herriko kanta berriaren notiziarik ez da hemen. Deskubrimendu asko egin behar du oraindik Parisek. Eta gauza bat ikasi: periferiari datorrela haize garbia. Edo enbata.

Joan Mari Torrealdaya



**ARCIA**

**Zuzenadaria:**  
MIREN JONE AZURZA

**ARISTEGIETA**

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22 Tel. 42 66 66

**ARLIDE SARIA:**

Barruan	350 pezeta
Korreo batasunetako errietan	400 pezeta
Atzerrietako berrietan	420 pezeta
Aldez	Aurrez galdutu

Salmetan (ale bakoitza) 8 pezeta

Irarkola eta Idazkolaria:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1. IRUIREA  
D. L.: NA. 80-1963